

“EGUN BAT ELISAREKIN OSPITALEAN”



Ikasle Kaiera



**Yolanda López de Audicana
Jimenez de Aberasturi**

Jesús Martin Bezos

1. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Erizaintza Klinikoa I irakasgaia, Erizaintza Graduako bigarren mailako lehenengo lauhilekoan ematen da Vitoria-Gasteizko EUEn eta 2011-12 ikasturtean ematen hasi zen.

Irakasgai hau Erizaintza Klinikoen multzokoaren barne dago. Lau dira, guztira: Erizaintza Klinikoa I, II, III eta IV. Irakasgai horiek Erizaintza Graduako prestakuntza osoan zehar ematen dira; Erizaintza Klinikoa I (6 kreditu, bigarren mailako lehenengo lauhilekoan), Erizaintza Klinikoa II (6 kreditu, bigarren mailako bigarren lauhilekoan) Erizaintza Klinikoa III (6 kreditu, hirugarren mailako lehenengo lauhilekoan) eta Erizaintza Klinikoa IV (10 kreditu, hirugarren mailako lehenengo lauhilekoan).

A. IRAKASGAIAREN DATU OROKORRAK

Jarraian, irakasgaiaren testuinguruaren ezaugarri orokorrak azalduko dira, ANECAk onartutako graduako egiaztapenerako memorian agertzen diren bezala.

a) **IRAKASGAIAREN IZENA**

Erizaintza klinikoa I

b) **TITULAZIOA**

UPV/EHUko Erizaintza Gradua

c) **MAILA ETA LAUHILEKOA**

Erizaintza Graduako 2. maila eta 1. lauhilekoa

d) **IRAKASGAIAREN ECTS KOPURUA**

ECTS kredituak: 6

e) **IRAKASKUNTZA MODALITATEAK**

Azalpen eskolak, egoera klinikoen analisia eta ikus-entzunezkoen laguntza dauzkatenak: 60 ordu. Simulazio tailerrak: 12 ordu.

Asteko aurrez aurreko orduak: Irakasgaiaren hasieran 4 ordu asteko; ondoren 4 eta 6 ordu asteko.

f) IRAKASGAIAREN BERARIAZKO GAITASUNAK

1. Dagozkion balorazio-prozesuak egiteko gaitasuna erakustea, planteatutako osasun-/gaixotasun-egoera hipotetikoak erlazionatuz, pertsona helduengan zaindu beharreko faktoreak identifikatzeko.
2. Arrazoketa klinikoak erakustea balorazioan jasotako datuen azterketan, irizpen profesionalak lantzeko.
3. Osasun/gaixotasun-egoeretan identifikatutako irizpen profesionalekin koherentea den arrazoketa terapeutikoa erakustea, zainketen egokitasuna argudiatuz, ebidentzia zientifikoan eta segurtasun klinikoaren jarraibideetan kokatuta, osasun-maila mantendu, handitu eta berreskuratzeko.
4. Zainketa-planetik ondorioztatutako erizaintzako zainketetarako teknikak eta prozedurak deskribatzea, zainketa profesionalizatua bermatzeko eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako praktika segurua bermatzeko.

g) ZEHARKAKO GAITASUNAK

Nahiz eta, AOIko (arazoetan oinarritutako ikaskuntza) garatze prozesuan gaitasun hoietako hainbat puntu landu, gaitasun hauen ebaluazioa beste irakasgaietan egiten da, koordinazio taldeak hartutako erabakia jarraituz.

h) HELBURUAK/ GAITASUNAK ETA IKASKUNTZA-EMAITZAK

1. gaitasuna

- Osasun-egoerak behatzeko eta horiei buruzko datuak biltzeko gaitasuna garatzen du.
- Datu garrantzitsuenak hautamen eta identifikatzen ditu, balorazio egokiak egiteko.

2. gaitasuna

- Informazioa aztertzen du, zainketa-gune garrantzitsuenak identifikatzeko.
- Datuak elkarrekin erlazionatzen ditu, irizpen kliniko egokiak identifikatzeko.

3. gaitasuna

- Banakako zainketa-plana, pertsonaren egoerara egokitzen dena, ezarri eta argudiatzen du, aurretik ezarritako irizpen klinikoekin bat datorrena.

4. gaitasuna

- Prozedura guztiak egiten ditu, erabilgarri dauden baliabideak eta segurtasun klinikoko printzipioak kontuan hartuta.

i) IRAKASGAIAREN GAI-ZERRENDA

I. gai-unitatea.

Osasunaren balorazioa: Bizi-konstanteak. Miaketa fisikoa.

Oheratutako pertsonentzako zainketa-guneak. Gorputz-sistemetako arazoak.

Larruazal osoan disfuntzioa daukaten pertsonentzako zainketa-guneak. Presio ultzerak eta bestelako zauriak.

Mina daukaten pertsonentzako zainketa-guneak.

Tailerrak: Arnas fisioterapiako tailerra, Zauriak sendatzeko tailerra

II. gai-unitatea.

Disfuntzio hematopoietikoak daukaten pertsonentzako zainketa-guneak; anemiak, polizitemiak, tronbozitopenia, hemofilia, koagulazio intrabaskular barreiatua. Hemoderibatuen transfusioak behar dituzten pertsonen kontzeptualizazioa eta beraiei zuzendutako erizaintzako zainketak. Terapia antikoagulatzailea duten pertsonen kontzeptualizazioa eta beraiei eman beharreko erizaintzako zainketak.

Metodo diagnostikoak: Odol-analisiak. Muin-aspirazioa. Muineko biopsia. Gongoiletako biopsia Erradiologia-azterketak. Azterketa isotopikoak (hezur-gammagrafia).

III. gai-unitatea

Arnasketaren erregulazioan, gas-trukaketan eta oxigenoaren garraioan disfuntzioak dituzten pertsonentzako zainketa-guneak. Buxadura-disfuntzioak: BGBK eta asma. Disfuntzio infekziosoak: pneumoniak eta TBK. Birika-odolaren fluxuari dagozkion disfuntzioak. BTE. Pleuraren disfuntzioak: Pleura-isuriaren sindromea, Pneumotoraxa.

Metodo diagnostikoak: Gasometria, espirometria, Toraxeko x izpiak, OTA. Biriketako gammagrafia, pleurako biopsia, bronkoskopia, karkaxa-hazkuntza.

Erizaintzako prozedurak: Jariakinen aspirazioa. Inhalazio-bidea. Toraxaren perkusioa. Toraxaren auskultazioa. Bentilazio mekaniko ez inbasiboa.

Tailerrak: Oxigenoterapia eta Inhalagailuak

IV. gai-unitatea.

Bihotz-funtzionamendu, eroapen eta erritmoaren disfuntzioak dituzten pertsonentzako zainketa-guneak: Sindrome koronario akutua eta kronikoa, Bihotz-gutxiegitasuna, Bihotz-arritmiak, Perikarditisa, Endokarditisa.

Metodo diagnostikoak: Elektrokardiograma (EKG), Holter, kateterismo kardiakoa, esfortzu-probak, ekokardiograma transesofagikoa eta estresekoa, baskulazio-azterketa, eta azterketa elektrofisiologikoak.

Tailerra. Elektrokardiograma estandarra eta 18 deribaziokoa. Bihotz-erritmoen identifikazioa. Gasometria arterialerako erauzketa-prozedura

V. gai-unitatea.

Zirkulazio sistemikoan, arterialean, benosoan eta linfatikoan disfuntzioak dauzkaten pertsonentzako zainketa-guneak: Arteriopatia periferiko kronikoak eta akutuak. Tronbosi benoso sakona, zainetako gutxiegitasun kronikoa. Linfedemak.

Metodo diagnostikoak: Arteriografiak, flebografiak, orkatila/besoa indizea, Doppler.

Tailerrak: Balorazio baskularra: Pultsu distalak, Doppler. Konpresio-terapia.

Unitate tematikoetako edukien garapena :

- Arduraren beharren balioespena. Disfuntzioaren esanahia , egoera hauetara pertsonaren erantzunaren analisisa eta datu hauen argudioa.
- Metodo diagnostikoak: Kontzeptua. Helburua. Metodo diagnostiko desberdinen aurrean estandarizatutako jarduerak eta tratamenduak (Prestaketa, irakaskuntza eta jarraipena)
- Judizio klinikoaren identifikazioa. NIC Erizain esku-hartzeak .

j) EBALUAZIO SISTEMA

1. Modalitatea: Presentziala.

Betekizunak: Tailer guztietara joatea eta AOIaren jarduera guztietara joatea

AOI	30%	100%
Eduki teorikoaren proba idatzia. Galdera motzak izango dira non hainbat egoera klinikoak ebatzi beharko diren.	60%	
Proba idatzia non, tailerretan landutako prozeduren ebazpen klinikoa, ebaluatuko da.	10%	

2. Modalitatea: Ez presentziala.

Betekizunak:

- 1.go modalitatean parte hartzerik ezin duen ikaslea , eta UPV/EHUko Graduko , lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegiako 43. artikuluari heltzen dion ikaslearentzat.
- Tailer guztietara joatea

Eduki teorikoaren proba idatzia. Galdera motzak izango dira non hainbat egoera klinikoak ebatzi beharko diren .	90%	100%
Proba idatzia non, tailerretan landutako prozeduren ebazpen klinikoa, ebaluatuko da .	10%	

B.INFORMAZIO OSAGARRIA

a) Helburu orokorra

Erizaintza prestakuntzaren helburua trebeak diren erizaintzako profesionalak heztea da, pertsonaren, familiaren eta komunitatearen osasun beharizanei erantzuteko.

Uste dugu garrantzitsua dela, ikaskuntza kooperatiboko metodologiak erabiliz, ikasleak bere ikaskuntza gogoetatsuari ekitea eta erizaintzako jakintzaren eta ikerketaren aurrerapenari eta berrikuntzari laguntzeko konpromisoa eskuratzea.

Erizaintza Zientzien moduluaren barnean, erizaintza klinikoa lau irakasgai biltzen dituen multzoa da, osasun asaldurak dituen helduaren azterketa lantzen duena.

Genero gogoetak ahaztu gabe, oso garrantzitsua da disfuntzioetatik ondorioztatutako zainketa beharizanak zehaztea, irizpen profesionalak egiteko: klinikoak, terapeutikoak eta etikoak.

Horretarako bidea: datuen analisia, arazoak lehenestea, planifikatzea eta erabakiak hartzea, tratatzera edo prebenitzera bideratutako teknikak eta prozedurak egiteaz gain.

Erizaintza klinikoa I irakasgaiaren ematen den jakintza funtsezkoa da, ikaslea balorazio prozesuak egiten hasi, eta pertsonaren osasun-egoera uler dezan. Gainera, zehaztutako irizpen profesionalekin koherenteak diren esku-hartzeak planifikatzen laguntzen dio ikasleari.

AOI metodologiaren bidez landuko diren edukiak funtsekoak dira gainerako Erizaintza klinikoak garatzeko.

b) Garatu beharreko gaiak

Ikasleek gai teorikoen eta praktikoen multzo bat landuko dute AOI metodologiaren bidez. Horiek irakasgaiaren heren bat dira, guztira

Honako gai hauei helduko zaie, zehatz-mehatz:

- Oheratutako pertsonentzako zainketa-guneak. Osasunaren balorazioa: Bizi-konstanteak. Miaketa fisikoa. Gorputz-sistemetako arazoak.
- Larruazal osoan disfuntzioa daukaten pertsonentzako zainketa-guneak. Presio ultzerak eta bestelako zauriak.
- Mina daukaten pertsonentzako zainketa-guneak.
- Alde teoriko horiek guztiak simulazio praktikoko tailerrekin, Arnas fisioterapiako tailerrarekin eta Zauriak sendatzeko tailerrarekin osatzen dira.

Proiektuaren asmoa AOIko programako gai guztien artean ardatz nagusia ezartzea da. Ardatz horrek ohiko egoera kliniko bat ikusi eta aztertu, kontzeptu teorikoak antolatu eta beren prestakuntzan garatuko den erizaintza klinikoaren ikuspegira hurbilaraziko ditu.

2. ERIZAINTZA KLINIKO I IRAKASGAIRAKO AOI-KO PROIEKTUA.

ABP-a da ikasketan, ikerkuntzan eta ikasleek , irakasleak planteatutako arazoaren aurrean erantzun zuzena har dezaten gogoetan, zentratutako metodologia. Ikasleari baimentzen dio hipotesis-a planteatzea, ezaguera mantentzen duten printzipioak identifikatzea eta azkenik ezaguera berrien beharrak ezartzea , arazoa hobeto ulertzeko eta ebazteko^{1,2}.

Ikasleak kolaboratiboki lan egiteko garrantzia ulertzen du eta bere ikasketa-prozesuarekin konpromisoa hartzen du

2.1. DISEINUA, AKTIBITATEAK ETA DENBORAK.

AKTIBITATEEN ZERRENDA	Aoiko %	IKASLEAREN ORDUAK P: Presentziala NP:Ez presentziala	IRAKASLEAREN ORDUAK
1. <i>Aoi-ren (arazoetan oinarritutako ikaskuntza) metodologiaren aurkezpena.</i>	% 1	Denbora: 2 ordu P: Ordu 1 NP: Ordu 1	Ordu 1
2. <i>Arazoa/egoeraren aurkezpena</i> <i>Egun bat ospitalean Elisarekin</i>	% 1,50	Denbora: Ordu 1 30min P: Ordu 1 NP: 30 min	Ordu 1
3. <i>Nola balora dezaket Elisa?</i>	% 5,5	Denbora: 4 ordu 30 min P: 4 ordu NP: 30 min	4 ordu
4. <i>Zer du Elisak? Zergaitik dago horrela?</i>	% 8	Denbora: 8 ordu 30 min P: 6 ordu NP: 2 ordu 30 min	6 ordu
5. <i>Zer egin dezakegu elisa hobeto senti dadin?</i>	% 11	Denbora: 10 ordu P: 8 ordu NP: 2 ordu	8 ordu
6. <i>Elisak bere egoera egoki gainditzen du.</i>	% 3	Denbora: 2 ordu P: 2 ordu	2 ordu
IKASLEAREN ARDURALDIKO ORDEN KOPURUA	Ordu presentzialak: 22 ordu		Ordu ez presentzialak: 6 ordu 30 min

2.2.KRONOGRAMA

1. AKTIBITATEA	
2. AKTIBITATEA	
3. AKTIBITATEA	
4. AKTIBITATEA	
5. AKTIBITATEA	
6. AKTIBITATEA	

1. ASTEA				2. ASTEA			
2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU	
	EKI GIDAREN AURKEZPENA						
EZ PRESENTZIALA: 2 ORDU							

3. ASTEA				4. ASTEA			
2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU	
EZ PRESENTZIALA : 2 ORDU 30 MINUTU							

5. ASTEA				6. ASTEA			
2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU		2 ORDU	
EZ PRESENTZIALA : 2 ORDU							

2.3. EBALUAZIOA.

1. DEIALDIA

1. Modalitatea: Presentziala. Betekizunak: Tailer guztietara joatea eta AOIaren jarduera guztietara joatea

AOIko EDUKIAK % 30	Taldeko ebaluazioa.	Portafolioa. % 2 Entregagarria. % 10	Koebaluazioa 3%	% 30	
	Bakarkako ebaluazioa.	Eduki teorikoaren proba idatzia. % 12 Tailerretako eduki praktikokoaren proba % 3			
Gainontzeko edukiak %70	Bakarkako ebaluaziorako	Bukaerako azterketa, non ebatzi beharreko egoera kliniko zenbait planteatuko diren.		%60	%100
	azterketa idatzia	Tailerretan landutako prozeduren aplikazio klinikoaren azterketa idatzia .		%10	

Ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izango da:

- **AOIko EDUKIAK (% 30) :**
 - Lan grupala egiaztatzen dituen lanak entregatu.
 - Bakarko ebaluaketarako frogak GAINDITZEA bere balorearen %50 lortzen.
- **Gainontzeko edukiak (%70) :**
 - Idatzizko proban 3,5 puntu lortzea

Oharra:

- Ikasleak AOIa gainditzen badu baina azterketa idatzia ez, AOIaren nota gorde egingo zaio bigarren deialdirako.
- Ikasleak ez badu AOIa gainditzen, azterketa idatzia egin dezake, baina, gainditzeko, 7 puntutik 5 lortu beharko ditu. Ez badu gainditzen, bigarren deialdira pasatuko da

2. Modalitatea: Ez-presentziala. Betekizunak:

- 1. modalitateko ebaluazio-sisteman ezin parte hartzea, justifikatuta, EHUko lehen eta bigarren zikloko Graduko Irakaspenak Kudeatzeko Araudian ezartzen den bezala (43. artikulua).
- Tailer guztietara joatea.

Irakasgaia osoa %100	Bakarkako ebaluaziorako azterketa idatzia	Azken azterketa: proba idatzia. Galdera labur batzuen bidez, ebatzi beharreko egoera kliniko batzuk planteatuko dira.	% 90	% 100
		Tailerretan landutako prozeduren aplikazio klinikoaren azterketa idatzia.	% 10	

2. DEIALDIA

AOla gainditua duten ikasleak % 30	Bukaerako azterketa. Galderetan, ebatzi beharreko egoera klinikoak agertuko dira, eta tailerretan landutako prozeduren aplikazio klinikoak erabili beharko dira. (7 puntutik 3,5 gutxienez)	% 70	% 100
Gainerako ikasleak	Bukaerako azterketa. Galderetan, ebatzi beharreko egoera klinikoak agertuko dira, eta tailerretan landutako prozeduren aplikazio klinikoak erabili beharko dira. (10 puntutik 5 gutxienez)	% 100	% 100

2.4. AKTIBITATE MOTAK: BLOOM-en TAXONOMIA.

Ondoren da ikasketa -emaitzen lorpenerako, jarduera diseinuko erreminta bezala BLOOM-en TAXONOMIAN³ oinarritutako koadroa.

TAXONOMÍA DE BLOOM DE HABILIDADES DE PENSAMIENTO (1956)

CATEGORÍA	CONOCIMIENTO RECOGER INFORMACIÓN	COMPRENSIÓN CONFIRMACIÓN APLICACION	APLICACIÓN HACER USO DEL CONOCIMIENTO	ANÁLISIS (ORDEN SUPERIOR) DIVIDIR, DESGLOSAR	SINTETIZAR (ÓRDEN SUPERIOR), REUNIR, INCORPORAR	EVALUAR (ÓRDEN SUPERIOR) JUZGAR EL RESULTADO
Descripción Las habilidades que se deben demostrar en este nivel son:	Observación y recordación de información; conocimiento de fechas, eventos, lugares; conocimiento de las ideas principales; dominio de la materia.	Entender la información; captar el significado; trasladar el conocimiento a nuevos contextos; interpretar hechos; comparar, contrastar; ordenar, agrupar; inferir las causas predecir las consecuencias.	Hacer uso de la información; utilizar métodos, conceptos, teorías, en situaciones nuevas; solucionar problemas usando habilidades o conocimientos.	Encontrar patrones; organizar las partes; reconocer significados ocultos; identificar componentes	Utilizar ideas viejas para crear otras nuevas; generalizar a partir de datos suministrados; relacionar conocimiento de áreas diversas; predecir conclusiones derivadas.	Comparar y discriminar entre ideas; dar valor a la presentación de teorías; escoger basándose en argumentos razonados; verificar el valor de la evidencia; reconocer la subjetividad.
Que Hace el Estudiante	El estudiante recuerda y reconoce información e ideas además de principios aproximadamente en misma forma en que los aprendió.	El estudiante esclarece, comprende, o interpreta información en base a conocimiento previo.	El estudiante selecciona, transfiere, y utiliza datos y principios para completar una tarea o solucionar un problema.	El estudiante diferencia, clasifica, y relaciona las conjeturas, hipótesis, evidencias, o estructuras de una pregunta o aseveración.	El estudiante genera, integra y combina ideas en un producto, plan o propuesta nuevos para él o ella.	El estudiante valora, evalúa o critica en base a estándares y criterios específicos.
Ejemplos de Palabras Indicadoras	- define - lista - rotula - nombra - identifica - repite - quién - qué - cuando - donde - cuenta - describe - recoge - examina - tabula - cita	- predice - asocia - estima - diferencia - extiende - resume - describe - interpreta - discute - extiende - contrasta - distingue - explica - parafrasea - ilustra - compara	- aplica - demuestra - completa - ilustra - muestra - examina - modifica - relata - cambia - clasifica - experimenta - descubre - usa - computa - resuelve - construye - calcula	- separa - ordena - explica - conecta - divide - compara - selecciona - explica - infiere - arregla - clasifica - analiza - categoriza - compara - contrasta - separa	- combina - integra - reordena - substituye - planea - crea - diseña - inventa - qué pasa si - prepara - generaliza - compone - modifica - diseña - plantea hipótesis - inventa - desarrolla - formula	- decide - establece gradación - prueba - mide - recomienda - juzga - explica - compara - suma - valora - critica - justifica - discrimina - apoya - convence - concluye - selecciona

2.5. ARAZO EGITURATZAILEAREN PLANTEAMENDUA

A. GALDERA OROKORRA

Proposatzen den agertokia oso egoera arruntekoa da, ikaslearen ezagutzara egokituta dago, eta praktika klinikoan egunero gertatzen dena. Garrantzitsua iruditzen zaigu ikasleak galdera hau egitea:

Nola hartu dezaket parte, oheratutako pazienteak, ospitalean dagoen bitartean, kalitatezko arreta jaso dezan?

Prozesu akutu batek behar duen gelditasuna edo erabateko atsedenaldiaren egoerak, berez, erizaintzako berriazko arreta eskatzen du. Gure helburua da ikasleak ondorioztatzea pazienteari eskaintzen zaion erizaintzako arretaren kalitatea erabakigarria dela prozesuak aldeko eboluzioa izan dezan. Ikasleak pentsatu behar du garrantzitsua dela ezagutza gehiago lortzea, horrela, gelditasun edo erabateko atsedenaldiaren ondorioz gerta daitekeen edozein konplikazio prebenitzeko edo, agertutakoan, nola jokatu jakiteko.

B. ARAZO EGITURATZAILEA

Egun bat Elisarekin ospitalean

Nuria, kirurgiako zerbitzuko erizaina, unitatera joan da goizeko txandan. Iristean, gaueko erizaina eta erizaintzako laguntzaileak Elisagatik kezkatuta aurkitu ditu (ospitalean 5 egun daraman 80 urteko emakumea).

Txandako talde osoa bildutakoan, pazienteak esleitu eta unitatean dauden pazienteen egoera klinikoaren informazioa ahoz pasatzen hasten dira. Parte ematen ari dela, Edurne (erizaintzako 2. mailako ikaslea) iritsi da, arnasestuka dator, autobusarekin arazoak izan ditu eta taldeari barkamena eskatzen dio.

Gaueko erizainak oso gau lanpetuta izan dutela esaten du; larrialdietako bost paziente sartu dira, lekualdaketa bat, eta Elisak, duela 4 egun heste-buxaduragatik operatuta, gau txarra pasa duela. Eboluzioa ez dela ona izaten ari: oraindik ohean, ahul, ia mugitu gabe, minez eta arnasa hartzeko arazo batzuekin. Gainontzeko pazienteek ondo lo egin dute.

*Ikasleak gertatutakoa gogoan hartzen du eta, partea bukatzean, Nuriarekin, unitateko bere erreferentziako erizaina, elkartzten da, eta galdera hauek egiten dizkio: **Horren gaizki dago Elisa? ,Zergatik dago horrela?, Okerra jo dezake?, Zer egin dezakegu Elisa hobeto egoteko?***

C. ARAZO EGITURATZAILEAREN JUSTIFIKAZIOA

Ohean dagoen pazientea da ospitalean aurkitu daitekeen benetako egoerarik sarriena. Egoera horretara arrazoi fisiopatologiko batzuegatik iristen dana eta ez dagona gelditasunari atxikiriko konplikazio batzuetatik salbu.

Arazo egituratzaileak bidea ematen dio ikasleari pertsona baten daturik nabarmenak identifikatzeko eta, horrez gain, ohean dagoen paziente baten gorputzaren sistemetan gerta daitezkeen balizko konplikazioetan sakontzeko ere bai. Ezin dugu mina ahaztu, egoera akutua jasaten ari diren paziente askorengan agertzen den arazo handia den aldetik, batzuetan haien oinarrizko patologiagatik, baina baita jasan behar izaten dituzten teknika diagnostiko eta terapeutikogatik ere.

Ikasleak identifikatu beharko du zeintzuk diren sakondu behar dituen kontzeptuak, arazoa hobeto interpretatzeko eta agertzen joango diren zalantzak konpontzeko. Erizaintzako oinarrizko prozeduretan trebetasunak lortzen joateko aukera izango dute, esate baterako, arnasketaren fisioterapia eta zauri baten sendaketa egitea.

Horrela, ikasleak baieztatu ahalko du, paziente horiei kalitatezko arreta eskaintzeko, zein garrantzitsua den alderdi askotako artikulazioa egitea, eta baieztatuko du zein handia den ohean egotearen egoeratik bakarrik datorren zainketa kopurua; askotan ospitalean sartzeko izan zuen egoera kliniko akutuaren arazoarekin zerikusirik ez dutenak.

D. IKASKUNTZAREN GAITASUNAK ETA EMAITZAK

Ikasleak, ikasgaiaren hasieratik, jakinaren gainean egon behar du, pazienteak ospitalean dauden bitartean, erizainak pazienteen zainketan duen eraginaren garrantziaz. Uste dugu garrantzitsua dela ikaslea bere garapen profesional guztian zehar gehitu behar dituen oinarrizko jokabideak barneratzen joatea, esate baterako; dituen ezagutzak analizatzeko gaitasuna eta etengabeko ikaskuntzaren aldeko hobekuntzaren esparruak identifikatu ahal izateko jarrera kritikoa izatea.

GAITASUNAK

Landuko ditugun gaitasunak

<p>1. GAITASUNA</p>	<p>Pertsonen egoeraren baliospen-prozesu egokiak egiteko ahalmena frogatu, planteatutako osasun egoera desberdinak elkarrekin erlazionatuz, pertsonen helduengan zainbharreko hildoak identifikatzeko gai izan daitezten</p>
<p>2. GAITASUNA</p>	<p>Arrazoiketa klinikoa erakustea balorazioan jasotako datuen azterketan, irizpen profesionalak lantzeko.</p>
<p>3. GAITASUNA</p>	<p>Osasun/gaixotasunaren egoeretan identifikatutako iritzi profesionalekin koherentea den arrazoitze terapeutikoa erakustea, horretarako, eta osasun-maila mantentzeko handitzeko eta berreskuratzeko helburuari begira, ebidentzia zientifikoan eta segurtasun klinikoaren ildoetan kokatuta, zainketen egokitasuna argudiatu.</p>
<p>4. GAITASUNA</p>	<p>Zainketa-planean jasota dauden erizaintzako zainketaren prozesuak eta teknikak deskribatzea, zainketa profesionalizatuta bermatzeko eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako praktika segurua ziurtatzeko.</p>

2.6 GARATU BEHARREKO AKTIBITATEAK.

1. JARDUERA: IRAKASGAIA ETA AOI-REN (ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA) METODOLOGIA AURKEZTEA IKASLEARI

Uste duzu "Erizaintza kliniko" irakasgaia garrantzitsua dela zure garapen profesionalerako? Zergatik?

Aurreikusitako denbora: 2 ordu

Aurrez aurrekoa: Ordu 1

Bertaratu gabekoa: Ordu 1

Jarduera: Talde osoa

Astea: 1

Garatu beharreko jardueraren mota: Jakintza: (Blomm-Taxonomia)³

1go.zeregina: Titulazioan barne, irakasgaiaren garrantziaren gaineko ideia euria.

2. zeregina: Lantaldearen eraketa.

Gaitasunak:

Ikaslea izango da kontziente, irakasgaiaren zehar egingo duen ikasketaren garrantziaz, pertsonen osasunaren balioespen errealizazioan konpetentzia lortzeko, judizioak eta erabaki klinikoak eraikitzeko, pazientearen osasun-egoeraren hobekuntzara eta ospitale-egonalditik jatorritako zailtasunen aurkako prebentziorako zainketen hautaketarako gaitasuna lortzeko.

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Erizainak pazienteak ospitale aldiaren zaintzeko orduan daukan garrantziaz konturatzea.

Ikaskuntzaren baliabideak:

Lan dinamika: ideia-jasa

Ebaluazioa: (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa:** Bilera ez presentzialetako Aktak. Taldearen osaera, taldekide bakoitzaren eginkizuna eta taldearen jokabide kodea adieraziko den dokumentua eta 1º zereginaren konklusioen laburpena

1 go JARDUERA

AOI-REN METODOLOGIA AURKEZTEA IKASLEARI

1. astea

Irakasleak aukeratu diren gaiak AOIren bidez lantzeko ezaugarri metodologikoak, banakako eta taldeko lanaren dinamika, eta ebaluazio sistema eta irizpideak azalduko ditu. (**Presentziala: 30 min**).

1.Zeregina. AOIren metodologia neurri handiagoan ulertu eta erabiltzeko, aurkezpen horrekin batera ideia-jasa egingo da (bikoteka), eta ondoren taldeak eztabaida gauzatuko du honako galdera honi buruz (**Presentziala: 30 min**):

USTE DUZU "ERIZAINZA KLINIKOA" IRAKASGAIA GARRANTZITSUA DELA ZURE GARAPEN PROFESIONALERAKO? ZERGATIK?

2. Zeregina. Bost ikasleko taldeak osatuko dira, eta balizko eginkizunak eta jokabide kodea hautatuko dituzte. Asteaz zehar horiek emango dizkiote irakasleari (**Ez presentziala: Ordu 1**).

JARDUERAREN EBALUAZIOA (Eranskinak ikusi)

• **Taldeko ebaluazioa:**

- **Portafolioa:** Bilera ez presentzialetako Aktak. Taldearen osaera, taldekide bakoitzaren eginkizuna eta taldearen jokabide kodea adieraziko den dokumentua eta 1go. zereginaren konklusioen laburpena

<p>2. JARDUERA: ARAZOA AURKEZTEA. ARAZOA AZTERTZEA ETA HIPOTESIA PROPOSATZEA. IKASKUNTZA BEHARRIZANAK DESKRIBATZEA</p> <p style="text-align: center;"><i>Egun bat ospitalean Elisarekin</i></p>
<p>Aurreikusitako denbora: 1 h 30 min. Aurrez aurrekoa: Ordu 1. Bertaratu gabekoa: 30 min.</p>
<p>Jarduera: banakakoa eta taldekoa. Astea: 1</p>
<p>Garatu beharreko jarduera mota: Ulermena (Blomm-Taxonomia)³</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zeregina: Arazoaren analisi indibiduala 2. Zeregina: Arazoaren talde txikiko analisia 3. Zeregina: Erabakietako bateratze-lana eta konklusioak
<p>Gaitasuna: 1.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen egoeraren baliospen-prozesu egokiak egiteko ahalmena frogatu, planteatutako osasun egoera desberdinak elkarrekin erlazionatuz, pertsonen helduengan zainbharreko hildoak identifikatzeko gai izan daitezten. • Ikasleek arazoa analizatu behar dute taldean, ideia nagusiak laburbildu, hipotesia proposatu eta arazoa konpontzeko landu beharreko ikaskuntza beharrizanak zerrendatu . Erantzuten behar izango duten galderak hurrengoak dira: Elisa-ren osasun-egoera nola balioetsi?, Zer gertatzen ari da?, Zergatik dago horrela?, Zer egin dezakegu hobetu dadila?
<p>Ikaskuntzaren emaitzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoa/egoera aztertu • Balizko hipotesiak arrazoiz deskribatu • Ikaskuntza beharrizanak zerrendatu
<p>Ikaskuntzaren baliabideak: Taldeko lana</p>
<p>Ebaluazioa. (Eranskinak ikusi)</p> <p>Taldeko ebaluazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Portafolioa : Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta arazoaren ebazpenaren ardatz nagusia.

2.JARDUERA

ARAZO/EGOERA AURKEZTEA.

1. astea

Egun bat ospitalean Elisarekin

Nuria, kirurgiako zerbitzuko erizaina, unitatera joan da goizeko txandan. Iristean, gaueko erizaina eta erizaintzako laguntzaileak Elisagatik kezkatuta aurkitu ditu (ospitalean 5 egun daraman 80 urteko emakumea).

Txandako talde osoa bildutakoan, pazienteak esleitu eta unitatean dauden pazienteen egoera klinikoaren informazioa ahoz pasatzen hasten dira. Parte ematen ari dela, Edurne (erizaintzako 2. mailako ikaslea) iritsi da, arnasestuka dator, autobusarekin arazoak izan ditu eta taldeari barkamena eskatzen dio.

Gaueko erizainak oso gau lanpetuta izan dutela esaten du; larrialdietako bost paziente sartu dira, lekualdaketa bat, eta Elisak, duela 4 egun heste-buxaduragatik operatuta, gau txarra pasa duela. Eboluzioa ez dela ona izaten ari: oraindik ohean, ahul, ia mugitu gabe, minez eta arnasa hartzeko arazo batzuekin. Gainontzeko pazienteek ondo lo egin dute.

*Ikasleak gertatutakoa gogoan hartzen du eta, partea bukatzean, Nuriarekin, unitateko bere erreferentziazko erizaina, elkartzen da, eta galdera hauek egiten dizkio: **Horren gaizki dago Elisa? , Zergatik dago horrela?, Okerra jo dezake?, Zer egin dezakegu Elisa hobeto egoteko?***

Jarduera hori banaka eta 5 ikasleko taldetan garatuko da, honako hiru zeregin hauen bidez:

1.Zeregina. Talde osoa. Arazoa banaka aztertzea. Ikasgelako praktika (Presentziala: 10 min).

Egoera banaka irakurtzea, eta horren funtsezko elementuak deskribatzea.

2.Zeregina. Talde txikia. Arazoa aztertzea. Ikasgelako praktika (Presentziala: 20 min)

Kasua talde txikitan aztertzea, banaka ateratako ideiak eztabaidatzea, eta honako informazio hau biltzen duen txosten laburra idaztea:

2.1 Gertatutakoari buruzko balizko hausnarketak eta balizko etiologiak proposatu.

2.2. Taldeak ikaskuntza beharrianak proposatu behar ditu, Edurnek Nuriari egin dizkion galderi erantzuten laguntzen diotenak. (“Zer ikasi behar dut, benetako erantzun profesionalak emateko gai izateko?”)

3. Zeregina: Talde handia. Bateratze-saioa. Ikasgelako praktika (Presentziala: 30 min).

Talde bakoitzaren erabakiak eztabaidatzea, eta ondorioak ezartzea. Irakasleak gidari jardungo du, ikasleak AOIren bidez arazoa konpontzeko garatu beharreko ikaskuntza beharrianak zehazteko.

Talde txikiak txostena prestatu eta aurkeztu behar du, adostasuna lortu ondoren. (Ez presentziala: 30 min).

JARDUERAREN EBALUAZIOA (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa

- **Portafolioa** : Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta arazoaren ebazpenaren ardatz nagusia.

3. JARDUERA:LEHENENGO AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

Nola balora dezaket Elisa?

Aurreikusitako denbora: 4 ordu 30 min.

Aurrez aurrekoa: 4 ordu.

Bertaratu gabekoa: 30 min.

Jarduera: banakakoa eta taldekoa. **Astea:** 2

Garatu beharreko jarduera mota: Analisia. (Blomm-Taxonomia)³

1. **Zeregina.** Arazoaren talde txikiko analisia
2. **Zeregina.** Kontzeptuen sintesirako lan individuala
3. **Zeregina.** Aronson Puzlea⁴. Planteatutako kontuetako Analisia
4. **Zeregina.** Ebaluazio indibidualeko proba.

Gaitasunak: 1.

- Pertsonen egoeraren baliospen-prozesu egokiak egiteko ahalmena frogatu, planteatutako osasun egoera desberdinak elkarrekin erlazionatuz, pertsonen helduengan zainbharreko hildoak identifikatzeko gai izan daitezen
- Ikasleak ezagutu behar du bizi-konstanteen garrantzia, bere interpretazio baita ere bere aldaketetan eragiten dieten faktore. Gainera esplorazio fisikoko errealizazioko sistematikoa, normaltasuneko datuak eta sistema desberdinen disfunziokoak ezagutuko ditu.

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Definitu bizi konstantearen kontzeptua , parametro arruntak, eta horiek aldatzea eragiten duten faktoreak kontuan hartuta.
- Zehaztu horiek kontrolatzea behar duten jardun klinikoko egoerak.
- Definitu azterketa fisikoaren kontzeptua, eta deskribatu teknika eta metodo guztiak, datu arruntak eta ez arruntak zehaztuta.

Ikaskuntzaren metodologia.

Taldeko lana eta banakako lana.

- Aronson Puzzlea³.

Hezkuntza baliabidea:

- Smith S. F, Duell D. J., Martin B. C, Técnicas de enfermería clínica. De las técnicas básicas a las avanzadas. 7ª edición 1 vol. PEARSON Prentice Hall. Madrid. 2009. p. 252 - 285.
- Irakasgaiaren gidan agertzen den bibliografía.

Ebaluazioa: (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
- **Entregagarriaren lehenengo zatia.**
 - 2. Eta 3. Zereginen edukien eta emandako erantzun adostuen laburpena.

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test-erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta

3. JARDUERA

LEHENENGO AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

2. astea

Nola balora dezaket Elisa?

*Nuriak egun batzuk eman ditu unitatetik kanpo, eta, horrenbestez, ez du Elisa ezagutzen. Beraz, gaueko txandako erizainak erregistratu duen bilakaera irakurri ondoren, historia klinikoa berrikusteko minutu batzuk hartzea erabaki du. Datu garrantzitsuenak irakurri eta gero, Nuriak esfigmomanometroa hartu, eta Elisaren gelara abiatu da, Edurnerekin batera. Gelan sartzean, Elisa etzanda dago. Agindu errazei ondo erantzuten die, eta elkarrizketa koherentea izateko gai da. Nuriak bizi konstanteak neurtzeko eskatu dio Edurneri, eta azterketa fisikoa egitea garrantzitsua dela adierazi dio. Hona hemen bizi konstanteak: TA: 90/60mmHg, T: 37,6 C° eta Fc: 100x' Edurnek honako hau galdetu dio Nuriari: **“Normalak dira konstante horiek? Nondik hasiko gara Elisarentzako azterketa egiten? Nola egin behar dut?, Zertarako egingo dugu hori guztia?***

1. Zeregina. Talde txikia. Arazoa aztertzea. Ikasgelako praktika (Presentziala: 30 min).

Edurnek Nuriari egin dizkion galderei erantzuteko ikaskuntza beharrianak ezarriko dira. Arazoak dakartzan ikaskuntza beharrianak banaka aztertzea, bateratzea eta adostea. Ondoren, 2. Zereginan agertzen diren ikaskuntzaren emaitzei lotutako kontuak banatuko dira taldekideen artean. Taldekideei galdera bana emango zaie.

2.Zeregina. Banakako lana. Kontzeptuak laburbiltzea (Presentziala: 90 min).

likasle bakoitzaren ardura izango da galdera horretarako erantzuna prestatzea eta gainerako taldekideei jakinaraztea eraginkortasunez, aurrez aurreko hurrengo saioan.

Garatu beharreko galderak:

- 1. Ikaslea: Definitu bizi konstante garrantzitsuenak eta horien parametro arruntak. Zein dira horien aldaketei eragiten dieten faktore fisiologikoak eta egoera patologikoak?
- 2. ikaslea: Izendatu eta argudiatu bizi konstanteen neurketa beharrezkoa izan daitezken jardun klinikoko egoerak.

- 3. ikaslea: Zer da azterketa fisikoa? Zein dira haren helburuak? Deskribatu metodo guztiak eta erizaina zaren aldetik garatzen duzun jarduerarako daukaten garrantzia: erizaintzako balorazioa eta pazienteari hurbiltzea (intimitatea eta autonomia).
- 4. ikaslea: Zehaztu gorputz sistemetan egon daitezkeen parametro arruntak eta osasuna aldatzen dutenak. 1go zatia.
- 5. ikaslea: Zehaztu gorputz sistemetan egon daitezkeen parametro arruntak eta osasuna aldatzen dutenak. 2. zatia.

Jarduera hau bidez saiatzen da auto-zuzendutako ikaslearen , arazoaren erabakirako taldearen osagaien arteko interdependentzia positiboaren eta taldearen osagai guztien baterako gogoetaren garrantziaren beharraren, ikasketa sustatzen osagai bakoitzaren ezaguerak osatuz eta adostasunera iritsiz.

3. Zeregina. Talde txikia. Arazoan konpondu beharreko kontuak aztertzea (Ez presentziala: 30 min).

Banakako lana amaitu ondoren, taldekideek egindako galderetarako erantzunak azalduko dituzte, sortu diren eragozpenak baloratuta. Erantsitako kontsulta bibliografikoa badago, erabili den bibliografia aipatuko da Vancouvergo araudiaren arabera.

Talde osoa. Aritu-taldearen bilera. Talde bakoitzak galdera bakoitzari buruz proposatutako kontuak aztertzea. Metodologia: Aronsonen puzlea⁴. Ikasgelako praktika (Presentziala: 20 min).

Galdera bera daukaten taldeetako kide guztiak bilduko dira. “Aritu-talde” berri horretan kideek gaikako harremana daukate beren artean. Horietako bakoitzak prestakuntza jaso, eta landu duen gaia azaldu beharko du. Horrela, beren oinarritzko taldera itzultzen direnean, gaia trebetasun handiz ezagutuko dute, eta norberak galderarako erantzuna azaldu ahalko die modu errazean taldeko gainerako kideei.

Talde txikia. Proposatutako kontuak aztertzea. Ikasgelako praktika (Presentziala: 25 min).

Taldea taldekide bakoitzak egin den galderetako bakoitzari emandako erantzunak aztertzeko bilduko da. Edukiak eta prestatu eta adostu diren erantzunak laburbiltzen dituen dokumentua diseinatzea, taldeko bozeramaileek aurkez dezaten.

Talde osoa. Proposatutako kontuak aztertzea. Ikasgelako praktika (Presentziala: 60 min).

Taldeetako bozeramaileek 3.Zereginan proposatu diren kontuetarako erantzunak bateratu eta adostuko dituzte, irakaslearen laguntzaz. Horrela, ikaskuntzaren emaitzak argituko dituzte.

4. Zeregina. Talde osoa. Banaka ebaluatzeko proba. Ikasgelako praktika (Presentziala: 15 min).

Saioan landu diren edukien inguruko test-erako froga (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).

5. Zeregina. Talde txikia. Entregagarriaren lehenengo zatia osatu. (Ez presentziala: Ordu 1)

Ikasleek dokumentu bat osatuko dute 3 jardueran lan egin duten eduki teorikoekin. Texto hau 6. Jardueran deskribatzen den idatzitako frogarako ikasteko giza erabiliko da.

JARDUERAREN EBALUAZIOA (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
- **Entregagarriaren lehenengo zatia.**
 - 2.eta 3. Zeregineren edukien, eta emandako erantzun adostuen laburpena prestatutako dokumentua

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test-erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta

4. JARDUERA: BIGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

Zer du Elisak? Zergatik dago horrela?

Aurreikusitako denbora: 8 ordu 30 min

Presentziala: 6 h

Ez-presentziala: 2 ordu 30min

Jarduera: Banaka eta taldean . **Astea:** 3 eta 4

Egin beharreko jarduera-mota: analisia. (Blomm-Taxonomia)³

1. **Zeregina.** Azpiarazoaren talde txikiko analisia
2. **Zeregina.** Talde osoko ideia-jasa eta irakaslearen euskarri teorikoa
3. **Zeregina.** Prebentziorako aktibitateen garapena talde txikian
4. **Zeregina.** Power Point-en (PPT) edukien aurkezpenaren saio nagusia
5. **Zeregina.** Talde osoa. Arnas fisioterapiako tailerra
6. **Zeregina.** Talde txikia. Entregagarriaren lehen zatia egitea

Gaitasunak: 1,2,3,4.

- Balorazio-prozesu egokiak egiteko gaitasuna erakustea, asaldutako osasun/gaixotasunaren egoerak elkarrekin lotu.
- Arrazoiketa klinikoa erakustea balorazioan jasotako datuen azterketan, irizpen profesionalak lantzeko eta hauen egokitasuna argudiatzen.
- Zainketa-planean jasota dauden erizaintzako zainketaren prozesuak eta teknikak deskribatzea, zainketa profesionalizatuta bermatzeko eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako praktika segurua ziurtatzeko.
- Erabateko atsedinari lotutako konplikazioak zein izaten diren ikasiko du ikasleak, eta beharrezko zaintzak ezarriko ditu sor daitezkeen egoerak hobetzeko eta prebenitzeko.

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Erabateko atsedena zer den definitzen daki, baita ohean dagoen pazientearen arrisku-faktoreak zein diren ere

- Azaltzen du zer konplikazio izan ditzakeen ohean dagoen paziente batek gorputzeko sistema ezberdinetan.
- Konplikazio horien erizaintzako zainketa prebentiboak garatzen ditu.
- Arnas fisioterapiaren prozedura deskribatu eta egiten du.

Ikaskuntzaren metodologia

- Talde-lana eta bakarkako lana.
- Rol-Playing teknika.
- Power Point aurkezpen bat egin.
- Egindako dokumentuaren ahozko azalpena.

Ikaskuntza-baliabideak:

- Ikasgaiaren gidan agertzen den bibliografia
- Eskuragarri eskolako liburutegian
- Lan akademikoko diseinu gida. Librea Gasteizeko Erizintza eskolako web orrian.
- Vancouver arauak

Ebaluazioa. (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak.
- **Entregagarriaren bigarren zatia.**
 - 4.Jardueraren edukien eta emandako erantzun adostuen laburpena.
- **Bideoa:** Arnas Fisioterapiaren prozedura.

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta

4. JARDUERA

BIGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

3. eta 4. astea

Zer du Elisak? Zergatik dago horrela?

*Nuriak eta Edurnek, Elisa aztertu ondoren, berriro erizaintzako kontrolera jotzea erabaki dute. Edurne kezkatuta dago, aldaketak sumatu baitizkio Elisari. Itzalita dago; hizketa etena du; jariaketak aditzen zaizkio, eta kosta egiten zaio arnasa hartzea. Korridorean daudela, Elisaren alabarekin topo egin dute. Hark esan die ez duela ondo ikusten ama, atzo ez zuela nahi izan besaulkitik altxatu ere, eta etzanda eman zuela eguna. Alaba urduri dago. Beldur da amak ez ote duen konplikazioaren bat, eta oraingo egoeraren gaineko azalpen kliniko bat eskatu die. Honela galdetu die: **"Zer ari da gertatzen? Zergatik dago hala? Ikusten dut egunero saiatzen zaretela hura animatzen besaulkitik altxa dadin, baita ibil dadin ere, ahal badu; izan ere, denbora asko darama ohean. Ulertzen dut garrantzitsua dela hori zuentzat. Zergatik? Nola lagun diezaioket arnasa hobeto har dezan?"**.*

1. Zeregina. Ezarri zer ikaskuntza behar diren Elisaren alabak egindako galderari erantzuteko.

Problema planteatutako ikaskuntza-beharrak banaka analizatu, bateratu eta ados jarri.

Talde txikia. Problemaren analisia. Gelako praktika. (Presentziala: 15 min)

Analisi indibiduala, bateratze-lana eta, arazoa planteatzen duen ikasketaren beharren, adostasuna

2. Zeregina. Talde osoa. Ohean dagoen pazientearen. (Presentziala: 60 min)

Saioa hasteko, ideia-zaparrada bat egingo dute (binaka), eta honako galdera hauei erantzuten saiatuko dira:

Zer gertatzen da erabateko atsedenak berez konplikazioak ekar ditzan? Zer konplikazio uste duzue ager daitezkeela?

Talde handian bateratzea egitean, irakasleak azalpen-laguntza teorikoa emango die (Just in time) kontzeptuen funtsa azaltzen laguntzeko, eta 3. zereginean egin beharreko lana ardaztuko du. Power Point eredu bat aurkeztuko da, ikasleek aipaturako zereginean egin beharko dutenaren gisakoa.

Egin beharreko Power Point dokumentuaren aurkezpena.

3. Zeregina. Talde txikia. Konplikazioen prebentzioa. (Presentziala: 45 min)

Ikasleek, taldeka, ohean egoteari lotutako konplikazio nagusiak jakinda, erabakiko dute lanerako zer plan sortu behar den, zehazte aldera zer jarduera egin behar diren konplikazio horiek prebenitu eta tratatzeko. Lana taldekideen artean banatuko dute.

Bakarkako lana. (Ez presentziala: 30 min) Egokitutako sisteman egin beharreko jardueri bakarka heldu.

Talde-lana. (Ez presentziala: 45 min). Taldekideak batu, eta analizatuko dute zer informazio ekarri duen bakoitzak landu beharreko sistemetarako. Power Point bat diseinatu eta emandako eduki eta erantzun adostuak laburtu, saio nagusian aurkezpena egiteko

4. Zeregina. Talde osoa. Saio nagusia. Power Point aurkezpena (Presentziala: 110 min)

Bi aurkezpen-saio egingo dira. Lehenean, konplikazioen erdiak aurkeztuko dira, eta, bigarrean, beste erdiak. Irakasleak erabakiko du, saio bakoitzaren hasieran eta ausaz, nor izango den talde bakoitzeko hizlaria. Beste taldeek Power Pointetan aurkeztutako informazioa osatzen lagunduko dute. Irakasleak gidatu egingo ditu azaltzen diren edukiak, ikaskuntzaren emaitzan ardaztuta.

5. Zeregina. Talde osoa. Banaka ebaluatzeko proba. Ikasgelako praktika (Presentziala: 15 min).

Saioan landu diren edukien inguruko test-erako frogak (Feedback-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).

6. Zeregina. Talde osoa. Arnas fisioterapiako tailerra: Gelako praktika. (Presentziala: 100 min)

Fisioterapeuta batek arnas fisioterapiako tailer bat emango du. Ikasleek, binaka, arnasketa-teknikak eta arnas fisioterapiakoak egingo dituzte.

Talde osoa. Arnas fisioterapiaren simulazioa. Gelako praktika. (Presentziala: 20 min)

Saioaren amaieran, egindako jardueraren simulazio bat egingo dute Rol-Playing teknikaren bidez.

Talde txikia. Bideo bat egin. (Ez presentziala. 15 min.). Talde bakoitzak bost minutuko iraupen handieneko bideo bat egingo du ,arnas fisioterapia teknika garatuz eta erizain baten jarduera antzeztuz

7. Zeregina.Talde txikia. Entregagarriaren bigarren zatia egitea. (Ez presentziala:Ordu 1) Ikasleek entregagarriaren lehen partean 4. jardueran lan egin duten eduki teoriko guztiak sartuko dute.

JARDUERAREN EBALUAZIOA. (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
- **Entregagarriaren bigarren zatia.**
 - 4.Jardueraren edukien eta emandako erantzun adostuen laburpena.
- **Bideoa:** Arnas Fisioterapiaren prozedura.

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta

5. JARDUERA: HIRUGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

Zer egin dezakegu Elisa hobeto senti dadin?

Aurreikusitako denbora: 10 h

Presentziala: 8 h

Ez-presentziala: 2 h

Jarduera: Banaka eta taldean **Astea:** 4., 5. eta 6.

Egin beharreko jarduera-mota: analisia. (Blomm -Taxonomia)³.

- 1.**Zeregina.** Arazoaren talde txikiko analisia .
- 2.**Zeregina.** Kontzeptuen sintesirako lan individuala .
- 3.**Zeregina** .Talde osoa.Aronson Puzlea⁴. Adituen taldea. Planteatutako kontuetako Analisia.
- 4.**Zeregina.** Saioa nagusia. Edukien analisia eta aurkezpena. Lesioen irudiak.
5. **Zeregina.** Talde osoa. Zauriak sendatzeko tailerra.
6. **Zeregina.** Talde txikia. Entregagarriaren bigarren zatia egitea

Gaitasunak: 1, 2 ,3 eta 4.

- Balorazio-prozesu egokiak egiteko gaitasuna erakustea, asaldutako osasun/gaixotasunaren egoerak elkarrekin lotu.
- Arrazoiketa klinikoaren erakustea balorazioan jasotako datuen azterketan, irizpen profesionalak lantzeko eta hauen egokitasuna argudiatzen.
- Zainketa-planean jasota dauden erizaintzako zainketaren prozesuak eta teknikak deskribatzea.
- Ikasleak, azalean sor daitezkeen lesioak hobetzeko eta prebenitzeko beharrezko zaintzak ezagutuko dituzela hala nola, minaren maneiorako behar izango direnak ere.

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Ondo definitzen dituzten ultzeraren, fisioterapiaren eta arrisku-faktoririk garrantzitsuenen kontzeptuak.
- Prebenitu eta tratatzeko erabiltzen diren erizaintzako zainketak deskribatzen dituzte; arriskua

baloratzeko eskala. Presioagatiko ultzerak baloratzeko teknika. Sendaketa ingurune hezeetan.

- Zauri-motak identifikatzen ditu, baita orbaintze-motak, lesio akutuen sendaketak eta konplikazioak
- Zauriak sendatzeko prozedura deskribatu eta egiten du.
- Badaki azaltzen minaren, hautematearen, atalasearen eta tolerantziaren kontzeptuak, baita horietako bakoitzak praktika klinikoan duen eragina ere.
- Mina baloratzeko metodoak deskribatzen ditu, baita horiek maneiatzeko jarduerak ere.

Ikaskuntzaren metodologia.

- Talde-lana eta bakarkako lana.
- Power Point aurkezpen bat egin.
- Egindako dokumentuaren ahozko azalpena.

Hezkuntza-baliabidea:

- Irakasgaiaren gidan agertzen den bibliografia.
- Liburutegian eskuragarri:
 - Smith S. F, Duell D. J., Martin B. C, Técnicas de enfermería clínica. De las técnicas básicas a las avanzadas. 7ª edición 1 vol. PEARSON Prentice Hall. Madrid. 2009. p. 875- 915.
 - Aguirre Aranaz RMª, Arejolaleiba Aguirrezabal M, Barberena Iriarte C, Estévez Hernández I, Martínez Martínez L, Urruela Oliván M. Protocolo de prevención y cuidados de las UPP. OSAKIDETZA. 2007 ISBN: 978-84-89342-77-6.
 - Smeltzer S, Bare B, Hinkle J, Cheever K. Brunner y Suddarth Enfermería medicoquirúrgica. 12ª Ed. Madrid: McGraw-Hill Interamericana. 2013. p. 230-262Lan akademikoko diseinu gida. Librea Gasteizeko Erizintza eskolako web orrian.
- Vancouver arauak
- Lesio ezberdinenen irudiak.

Ebaluazioa. (Eranskinak ikusi)

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako

ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak

- **Entregagarriaren hirugarren zatia.**
 - 5.Jardueraren edukien eta emandako erantzun adostuen laburpena.
- **Bideoa:** Zauriak sendatzeko prozedura .

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta.

5. JARDUERA

HIRUGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

4., 5. eta 6. Astea.

Zer egin dezakegu Elisa hobeto senti dadin?

*Zortzi eta erdiak dira, eta erizaintzako laguntzaileak guriak prestatzen ari dira ohean dauden pazienteak garbitzen hasteko. Lehen aldia da Edurnek praktikak egiten dituela ospitale batean. Badaki pazienteak garbitzea oso garrantzitsua dela haiek baloratu ahal izateko, eta badaki ezen, nahiz eta erizainek laguntzaileei uzten dieten lan hori, erizainena dela berez garbiketaren lege-erantzukizuna. Horregatik, Elisa garbitzera joan da, Nuriaren laguntzarekin. Garbiketean, Elisak apenas laguntzen du. Minez dago, eta ez darama ondo gorputz-jarrera aldatzea. Estutzean, gorritu egiten zaio azala, eta zauri kirurgikoaren apositua zikindua du. Garbiketaren ostean, Elisa lasai eta eroso gelditzen da, baina Edurne dudaz blai dago berriro: **"Nola lagunduko diot hobeto senti dadin? Zer egin behar dut haren minarekin? Zenbaterako mina du? Zer dira azaleko gorriune horiek? Konplikazioren bat ote du zaurian?"**.*

1.Zeregina. Ezarri zer ikaskuntza behar diren Edurnek egindako galderei erantzuteko.

Talde txikia. Problemaren analisisa. Gelako praktika. (Presentziala: 30 min)

Problemak planteatutako ikaskuntza-beharrak banaka analizatu, bateratu eta ados jarri. Gero, taldekideen artean banatuko dira 2. Zereginan agertzen diren ikaskuntzaren emaitzekin lotutako galderak.

2.Zeregina. Bakarkako lana. Kontzeptuen sintesia (Presentziala: 90 min) (Ez Presentziala, 30 min)

Taldekilde bakoitzari galdera bat emango zaio. Hala, ikasle bakoitzak bere erantzuna prestatzeko ardura izango du, baita taldekideei modu eraginkorrean jakinaraztekoa ere, hurrengo saio presentzialean.

Ikasle guztiak mina inguruko galderarako erantzuna prestatzen arduratuko da.

- 1. ikaslea: Zauri-mota akutuak deskribatu eta azaldu ager daitezken konplikazioak.
- 2. ikaslea: Azaldu zauri akutuen orbaintze-motak eta sendaketa prozedura.
- 3. ikaslea: Zer da Presioagatiko ultzera?, Zer zauri mota da?, Zeintzuk dira hauen eragileak eta arrisku faktoreak?, Non agertzen dira gehien?
- 4. ikaslea: . Ultzeren prebentziorako neurriak eta arriskuen balorazioaren eskala azaldu
- 5. ikaslea: . Nola baloratzen da ultzera bat? Nola zaindu behar da estadio bakoitzean .
- **IKASLE GUZTIAK:** Minaren, hautematearen, atalasearen eta tolerantziaren kontzeptuak azaltzen ditu, baita horietako bakoitzak praktika klinikoan duen eragina ere. Minaren balorazioaren metodoak deskribatzen ditu, eta hura maneiatzeko jarduerak.

Jarduera hau bidez auto-zuzendutako ikaslearen eta taldearen osagaien arteko interdependentzia positiboaren beharraren, ikasketa sustatzea helburua da.Egokitutako galderari erantzuteko beharrezkoa.

Talde txikia. Probleman ebatzi beharreko gaien analisisa. (Ez presentziala: 15 min)

Bakarkako lana bukatuta, taldekideek galderen erantzunak aurkeztuko dituzte, sortu diren eragozpenak baloratuta. Bestelako kontsulta bibliografikorik egin bada, zehaztu egingo da zer bibliografia erabili den, Vancouver araudiaren arabera zehaztu ere.

3. Zeregina. Talde osoa. Planteatutako galderen analisia. Gelako praktika. (Presentziala: 60 min)

Irakasleak minaren gaia inguruko galdera batzuk aurkeztuko ditu talde bakoitzak erantzun eta eztabaidatzeko.

4. Zeregina. Talde osoa. Aritu-taldearen bilera. Talde batek galdera bidez planteatutako gaien analisia. Metodologia: Aronsonen puzlea ⁴. Gelako praktika. (Presentziala: 30 min)

Talde ezberdinetako kideak batu egingo dira: galdera bera duten guztiak, hain zuzen. "Arituen talde" berri horretan, harreman tematiko bat dute kideek. Bakoitzak bere burua prestatu behar du, eta landutako gaia azaldu; hala, berriro jatorrizko taldera itzultzen direnean, erraz moldatuko dira gaiarekin, eta trebezia azaldu ahal izango diete galderaren erantzuna beste taldekideei.

Talde txikia. Planteatutako gaien analisia. Gelako praktika. (Presentziala: 30 min)

Taldea batu egingo da, taldekide bakoitzak galdera bakoitzari emandako erantzunak analizatzeko. Power Point bat diseinatu eta eduki eta erantzun adostuak laburtu, saio nagusian aurkezpena egiteko.

5. Zeregina. Talde osoa. Planteatutako gaien analisia. Gelako praktika. (Presentziala: 90 min)

Irakasleak erabakiko du, saio bakoitzaren hasieran eta ausaz, nor izango den talde bakoitzeko hizlaria. Beste taldek Power Pointetan aurkeztutako informazioa osatzen lagunduko dute. Irakasleak gidatu egingo ditu azaltzen diren edukiak, ikaskuntzaren emaitzan ardaztuta. 3. Zeregineko Power Point-ean antzemandako puntu nagusietako Feedback hezigarria egingo da

Talde osoa. Azaleko lesioen irudi-aurkezpena. Gelako praktika. (Presentziala: 30 min)

Lesio akutu eta kronikoen analisi praktikoa bat egingo du irakasleak ikasleekin batera, irudi batzuk proiektatuz.

6. Zeregina . Talde osoa. Zauriak sendatzeko tailerra. Gelako praktika. (Presentziala: 100 min)

Klinikako bi irakasleek zauriak sendatzeko tailer bat emango dute. Ikasleek, binaka, zauriak sendatzeko eta puntuak kentzeko teknika egingo dute.

Talde osoa. Zauri bat sendatzearen simulazioa. Gelako praktika. (Presentziala: 20 min)

Saioaren amaieran, egindako jardueraren simulazio bat egingo dute rol playing teknikaren bidez.

Talde txikia. Bideo bat egin. (Ez presentziala. 15 min.). Talde bakoitzak bost minutuko iraupen handieneko bideo bat egingo du ,zaurien sendaketa teknika garatuz eta erizain baten jarduera antzeztuz.

7. Zeregina. Talde txikia. Entregagarriaren hirugarren zatia egitea. (Ez presentziala: ordu 1)

Ikasleak entregagarriaren lehen zatia egingo du, non 5 jardueran landu diren eduki teoriko guztiak sartuko du.

JARDUERAREN EBALUAZIOA

Taldeko ebaluazioa:

- **Portafolioa :**
 - Bilera ez presentzialetako Aktak, arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak eta saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
- **Entregagarriaren bigarren zatia.**
 - 5. Jardueraren edukien eta emandako erantzun adostuen laburpena.
- **Bideoa:** Zauriak sendatzeko prozedura.

Bakarkako ebaluazioa:

- **Saioan landu diren edukien inguruko test erako froga** (Feek-back-erreminta, eta autoebaluazio erreminta giza).
- Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da 6 jardueran deskribatuta

6. JARDUERA. LAUGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

Elisa egoki leheneratzen da

Aurreikusitako denbora: 3 h

Presentziala: 3 h

Jarduera: Banaka. Astea: 6

Egin beharreko jardueramota: analisia. (Blomm -Taxonomia)³.

- 1. Zeregina.** Minimoetako idatzitako proba.
- 2. Zeregina.** Taileren edukien proba praktikoa

Gaitasunak:

- Ikasleak, AOIko metodologia bidez garatutako unitate tematikoetako ezaguerak eta trebetasunak menderatzen dituela frogatuko ditu

Ikaskuntzaren emaitzak:

- Lortutako ezagueren sintesiaren eta analisiaren ahalmena frogatzea.

Ikaskuntzaren metodologia.

- Banakako lana

Ebaluazioa. (Eranskinak ikusi)

- Idatziko eta praktikoa proba.

6. JARDUERA.

LAUGARREN AZPIARAZOAREN AURKEZPENA

6.astea.

Elisa egoki leheneratzen da

48 h-etara Elisa nabarmenki hobetu da. Balioespena hari egin ondoren arnas zailtasunak positiboki eboluzionatu duela eta arnas fisioterapia iragankorra izan dela ikusten dugu. Ez du minik aurkezten eta bere higikortasun-gradua handitu da. Gorritutako zonak progresiboki hobetzen ari dira ere. Medikuek ibiltzea gomendatzen dio eta laster alta emango diola komunikatzen dio berari eta familiari. **Zer ikasi dugu esperientzia honekin?**

1. **Zeregina: Talde osoa. Gutxienekoen proba, bakarkako ebaluazioa. Gelako praktika. (Presentziala: Ordu 1)**

AOIko eduki guztien proba idatzi bat egingo da, eta ikasleak erakutsi beharko du menderatzen dituela AOIko metodologian landutako edukien gutxienekoak.

2. **Zeregina. Talde txikia. Tailerren proba praktikoa. (Presentziala: Ordu 1) .**

Emandako tailerren inguruko proba praktikoa bat egingo da.

JARDUERAREN EBALUAZIOA

Bakarkako ebaluazioa:

Edukiko eta proba praktikoko idatzitako proba bat egingo da. Ebaluazio batutzailerak.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA. EGIN BEHARREKO DOKUMENTUEN DESKRIBAPENA

JARDUERA	DOKUMENTUA	EDUKIAK
1	1.Portafolioa	<p>Bilera ez presentzialeko akta :</p> <ul style="list-style-type: none"> • Talde-konposizioa eta Jokabide Kodea. • Zenbaki 1 zereginaren ideia laburpenak
2	2. Portafolioa	<p>Bilera ez presentzialetako akta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak • Arazoaren ebazpenaren ardatz nagusia
3	3. Portafolioa	<p>Bilera ez presentzialetako akta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak • 3. Zeregineko saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
	1.Entregagarria	3. Jardueran landutako edukiak
4	4.Portafolioa	<p>Bilera ez presentzialetako akta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak • 4. Zeregineko saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
	2.Entregagarria	4. Jardueran landutako edukiak
	1.Bideoa	Arnas Fisioterapiaren prozedura

5	5.Portafolioa	<p>Bilera ez presentzialetako akta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren inguruko eztabaidan somatutako ikasketa beharrak • 5. Zeregineko saio orokorretatik jasotako hobekuntzak
	3.Entregagarria	3. Jardueran landutako edukiak
	2.Bideoa	Zauriak sendatzeko prozedura

Dokumentuen entrega:

- Entrega-data, jarduera bakoitzaren amieran ikasleei komunikatuko zaie.
- Ematea e-Gela plataforman egingo da..

Dokumentuen identifikazioa:

- **Portafolioa:** *G talde zenbakia_P dokumentuaren zenbakia_lerro linguistikoa*

Adibidea: 3. taldea, euskara lerroa, portafolio 1 : G3_P1_euskera

- **Entregagarria:** *G talde zenbakia_E dokumentuaren zenbakia_lerro linguistikoa*

Adibidea:4. taldea, erdara lerroa, entregagarria 2 : G4_E2_castellano

- **Bideoak:** *G talde zenbakia_B dokumentuaren zenbakia_lerro linguistikoa*

Adibidea: 3 taldea, euskara lerroa, bideoa 1 : G3_B1_euskera 1

2. ERANSKINA . BILERA EZ PRESENTZIALEN AKTAK IDAZTEKO EREDUA.

Idazkaria:		
Bilera zenbakia:	Data:	Hurrengo bilera:
Partaideak		
Gai-zerrenda		
TRATATUTAKO GAI GARAPENA		
ERABAKITAKO AKORDIOETAKO ARDURADUNAK		
Jarduera		Arduraduna
•		
•		
•		

3. ERANSKINA. PORTAFOLIOA.

1. TALDEKA AURKEZTEN DEN PORTAFOLIOAK HONAKO HAUEK BILDU BEHARKO DITU:

- a) Taldeko lanaren diseinua:
 - Osaera
 - Jokaera kodea (Taldearen arauak)
 - Eginkizunak banatzeko diseinua
- b) Egindako jarduerak, gauzatutako zereginak eta horiek konpontzea
- c) Egindako zuzenketen/aldaketan zehaztapena
- d) Taldearen baterako ebaluazioa: portaera profesionala, eta taldeak aurrera egiteko zein edukiak garatzeko ekarpena

2. PORTAFOLIOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

A. Taldeko lanaren diseinua

A.1 Portaera arauak modu argian eta adostuan ezartzen ditu.

A.2 Taldearen lan metodologia zehazten da, kide bakoitzari esleitutako eginkizunak zehaztuta.

B. Egindako jarduerak. Gauzatutako zereginak eta horiek konpontzea

B.1 Proposatutako jarduera guztiak gauzatzen ditu, dagozkion zereginak behar bezala eginda.

B.2 Zereginetarako konponbideak ondo oinarrituta daude kontzeptuen ikuspuntuik, erantzunak argiak, justifikatuak eta gogoetatsuak direla.

C. Konponbideetarako zuzenketak/aldaketak zehazten dira.

Talde handian emaitzak eztabaidatu ondoren hasierako konponbideetarako zuzenketak/aldaketak zehazten dira.

D. Taldearen baterako ebaluazioa: Atal horri dagokion kalifikazioa azken notaren % 3 izango da. Ebaluazioko uneak irakasleak zehaztuko ditu. Datuen konfidentzialtasuna beti bermatuz era aleatorioan aukeratutako taldearen hiru partaidek ikasle bakoitza ebaluatuko dute.

Balorazioa: item bakoitzak 1 eta 10 arteko balioa dauka (1-2: txarra; 3-4: ez nahikoa; 5-6: onargarria; 7-8: ona; 9-10: bikaina)

TALDEAREN BATERAKO EBALUAZIOAREN RUBRIKA.

IRIZPIDEAK	TXARRA	EGOKIA	ONA	BIKAINA
ERANTZUKIZUNA				
Garaiz iristen da, eta egutegia errespetatzen du	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Saioak aldeaz aurretik prestatzen ditu	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Ahaleginak egiten ditu, eta hobera egiten du	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
IKASKUNTZA				
Taldearen ikaskuntzari laguntzen dio	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Bildutako informazioa kritikoki aztertzen du	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
PARTE-HARTZEA				
Badaki hitza kendu gabe entzuten	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Taldeari ideiak ekartzen dizkio	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Kritika konstruktiboak egin eta jasotzen ditu	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti
Gatazkak konpontzen laguntzen du	Inoiz ez	Noizbait	la beti	Beti

TALDE ZENBAKIA:	IKASLEAK	PUNTUAZIO TOTALA
	1.	
	2.	
	3	

4. ERANSKINA. ENTREGAGARRIAREN EBALUAZIOAREN ERRUBRIKA

IRIZPIDEAK	GUTXIEGI	GAINDITUA	OSO ONGI
Ortografia	Bi ortografia-akats baino gehiago daude	Bat edo bi ortografia-akats daude	Ortografia-akatsik ez
Formatua	Ez ditu betetzen lan akademiko baten irizpideak	Aurkezpen akademiko oinarritzkoa.	Gutziz bat dator EUEko Estilo Gidak aurkezpen akademikorako dituen irizpideekin.
Komunikazio idatzia	Modu nahasgarrian adierazita dago. Zaila da ulertzen	Ordena logikoan agertzen dira gaiaren inguruko alderdiak	Gaian sakondu du, argudioen bidez gidatutako ildo argi bati jarraituz
Koherentzia	Lana nabarmen indibidualista da. Ez dago loturarik sekzioen artean.	Eginkizun indibidualak elkarri lotuta daude.	Dokumentuak elkarren arteko eztabaida eta lankidetzaren erakusten du.
Informazio-iturriak	Jatorri profesionala ez duten informazio-iturri desegokiak erabiltzen ditu.	Irakasleak emandako informazio-iturriak erabili ditu	Informazio-iturri egokiak erabiltzen ditu, irakasleak emandakoetatik haratago.

Irizpide bakoitzean lortutako puntuazioa gehituko da. Bost irizpideetan dena oso ongi lortzen duen ikaslea, berenota 10 puntukoa izanik.

5. ERANSKINA. GUTXIENKO EDUKIEN EBALUAZIO TEORIKOAREN ERRUBRIKA

ADIERAZLEAK	GUTXIEGI	GAI	OSO ONGI	BIKAIN
EDUKIEN garapena	Ez ditu identifikatzen funtsezko kontzeptuak. Kontzeptu-akats nabarmenak daude.	Oinarrizko azalpena ematen die kontzeptuei. Akats ez oso garrantzitsu batzuk egin ditu.	Modu koherentean deskribatzen ditu kontzeptuak. Ez dago akatsik kontzeptuen aldetik	Azaltzen eta argudiatzen ditu ezagutza-arlo garrantzitsu guztiak.

6. ERANSKINA. EBALUAZIO PRAKTIKOAREN ERRUBRIKA

IRIZPIDEAK	GUTXIEGI	NAHIKOA	OSO ONGI	BIKAIN
Erantzukizuna	Ez ditu mantentzen segurtasun klinikoko eta pazientearen eskubideen oinarriak.	Segurtasun klinikoko eta pazientearen eskubideen oinarriak mantentzen ditu, maisuaren laguntzaz.	Segurtasun klinikoko eta pazientearen eskubideen oinarriak mantentzen ditu, batenbat izan ezik	Une oro berekabuz mantentzen ditu, segurtasun klinikoko eta pazientearen eskubideen oinarriak.
Teknika	Ez da gai materiala aukeratzeko edota prozedura osatzeko.	Behin edo birritan, irakaslearen bultzada behar du materiala aukeratzeko edota prozedura osatzeko.	Irakaslearen bultzada puntuala behar du, material egokia aukeratzeko edota prozedura osatzeko du.	Material egokia aukeratzeko du. Eskainitako bibliografiaren arabera sekuentziatzen du prozedura.
Analisia	Ez da gai arrazoitzeko zergatik jardun duen jardun duen bezala	Irakaslearen laguntza behar du bere jokabidea arrazoitzeko.	Behin edo birritan, irakaslearen laguntza behar du bere jokabidea arrazoitzeko.	Une oro arrazoitzen du bere jokabidea.

BIBLIOGRAFIA

1. Universidad Politécnica de Madrid, Servicio de Innovación Educativa. Guía rápida de nuevas tecnologías. Aprendizaje Basado en Problemas; 2008. [Consultado 14 Abril 2015]. Disponible en:
http://innovacioneducativa.upm.es/guias/Aprendizaje_basado_en_problemas.pdf
2. Fdz de Aránguiz A, Colom K. Bacterias y salud. La importancia de conocerlas y controlar su crecimiento. 2014. IKD baliabideak.
3. López JC. La taxonomía de Blom y sus actualizaciones. Eduteka.2002. (actualizado 01 septiembre 2014; citado 16 Marzo 2015). Disponible en:
<http://www.eduteka.org/TaxonomiaBloomCuadro.php3>
4. Martínez J, Gómez F. (2010) La técnica puzzle de Aronson: descripción y desarrollo. En Arnaiz P, Hurtado M^a. D, Soto F.J. (Coords.) 25 Años de Integración Escolar en España: Tecnología e Inclusión en el ámbito educativo, laboral y comunitario. Murcia: Consejería de Educación, Formación y Empleo.